Getariako Udala

Espediente kodea: 2023HBES0006
Titularra: EUSKO JAURLARITZA, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila

TXOSTEN TEKNIKOA

ATUN GORRIA GIZENTZEKO EGITASMOA

1-Aurrekariak

2023ko apirilaren 11an Eusko jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak jakinarazpena helarazi zion Getariako Udalari, non honen inguruan berri ematen zen:

- Itsabalfegó SL enpresa atun gorria gizentzeko espedientea izapidetezen ari da.
- 2023ko apirilaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Arrantza eta Akuikultura zuzendariaren 2023ko martxoaren 13ko Ebazpena, proiektua jendaurrean jartzen zuena eta 15 eguneko epea eman zen alegazioak egiteko.

2-Proiektuaren ildo nagusiak

Idatziari atxikitutako proiektuan jasotzen denez, egitasmoaren xede nagusia da atun gorria gizentzeko bi kaiola urperagarri jartzea Getariako portutik 3,688 miliara.

Proiektuaren sustatzailea Itsas Balfegó SL enpresa da, Eusko Jaurlaritzako AZTI zentro zientifiko eta teknologikoak parte duena, hau da, ekimen publiko-pribatua da.

Jarri nahi diren kaiolen ezaugarri nagusiak honakoak dira:

- Kokapena = Getariako portutik 3,688 miliara iparralderuntz (kokapen zehatza ematen da)
- Kopurua = 2
- Diametroa = 50 m
- Sarearen altxaera bertikala = 20 m
- Sareraren sakonera guztira = 30 m

Egitasmoaren oinarria da arrantzontziek egun duten atuna arrantzateko modua aldatzea, aleak banaka harrapatzetik inguraketa-modalitatera pasata. Inguraketa modalitate hau erabilita harrapatutako piezek honako ibilibidea jarraitu beharko dute:

- Inguraketa sarean arrantzatutako aleak kaiola urperagarrietara pasa.
- Astean 5-6 aldiz atunak elikatu, garaian garaiko arrain urdina erabiliaz.
- Behin tamaina egokia hartzen dutenean, atunak banaka atera.
- Atunak prozesatu eta momentuan ultraizoztu.
- Arraianak merkaturatu.

Proiektuko memorian jasotzen da hainbat eragin izango dituela egitasmoak:

- Arrantza-ontzidian onurak, arrantza-modalitatean aldaketa suposatzen duen heinean.
- Sektore turistiko eta gastronomikoan onurak, kalitate gorneko produktuaren eraginez.
- Jarduera berri baten sorrera erkidegoan.
- Arrantza kuoten lagapenak saihesteko modua.
- Lanpostuen sorrera itsasoari loturiko jardueretan.
- Jasangarritasuna, elikagaien prozesatzean eta baliabideak ustiatzean.

3-Gaiaren azterketa

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta ikusirik egitasmoaren jarduera nagusia, nahiz eta Getariatik gertu izan, itsasoan dela, Getariako Udalak ez du bere eskumeneakoak diren gaietan eragozpenik ikusten.

Halere, badira hainbat gai kontuan hartu beharrekoak:

- Jasangarritasuna

  Jarri nahi diren kaioletatik gertuen dagoen portua Getariakoa izanik, jasangarritasun aldetik, jardueraren gune nagusia Gertariako portuan egotea eskatzen du, beharrezkoak ez diren garraoiak saihesteko, horrek dituen ondorio negatibo guztiekin.

- Tokiko ekonomian eragina

  Proiektuaren arabera sortuko diren lanpostuak tokiko ekonomian eragina izatea garrantzitsua da, lehen sektoreari hain lotuta dagoen herriko gazteek aukerak izan ditzaten lanpostu horiek eskuratzeko, arrantza sektorean generazioen arteko jarraipena bermatzeko.

- Berdintasun irizpideak

  Hain maskulinizatua dagoen lehen sektorean sortuko diren lanpostu berri hauetan berdintasun irizpideak kontuan hartzea beharrezkoa da, paredikidetasuna izanik helburu.

Getariako Udala

4-Ondorioak

Aurreko guztia kontua izanda, Getariako Udalak bere eskumeneko diren gaietan ez du ergozpenik ikusten Itsas Balfegó SL enpresak atun gorria itsasoan gizentzeko duen egistasmoaren inguruan.

Halere, honakoa eskatzen du:

- Jasangarritasun irizpideak jarraiki, jardueraren lurreko gune nagusia Getariako portuan kokatzea.
- Sortuko diren lanpostu berrietan herriko gazteak kontuan izatea, arrantza sektorearen generazioen arteko jarraipena bermatzeko.
- Sortuko diren lanpostu berrietan berdintasun irizpideak kontuan izatea, lehen sektorean ere parekidetasunaren aldeko apustua indartzeko.

Eta hau da nire iritzia, behar denerako bailo dezan.

Sinatzailea:	udal-arkitektoa Imanol Agirre Manterola
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: **https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA3Z0WL.nMXC**	